

# **Euskararen egoera soziolinguistikoa, hizkuntz erregistroak eta euskararen irakaskuntza**

**Dionisio Amundarain**

## **SARRERA**

Gauza jakina da, hizkuntzaren irakaskuntzan denbora luzez hizkuntzalariak hartu izan direla teoriko bakarizat. Eta ez gara ari antzina-antzina hizkuntzak irakasteko erabili ohi zen metodoaren (arau gramatikalak buruz ikasi, beruen aplikaziorako itzulpen idatziak egin, hitz-zerrendak buruz ikasi) kasuaz bakarrik; hurbilagokoak ditugu funtsezko teorikotzat behavioristak nahiz Chomsky hartzen zituzten hizkuntz irakaskuntzaren metodologiak.

Gaur egun beste era bateko parametroak erabiltzen dira hizkuntzaren ikaskuntz/irakaskuntzaren teorikoen artean:

- hurbilpen komunikazioa
- hizkuntza situazionala
- ikaskuntza/irakaskuntza
- ikaskuntza/irakaskuntza funtzional nahiz funtzional/nozionala
- hizkuntz trebetasunak: entzumen, mintzamena, irakurmena, idazmena

- komunikazioaren elementu osagarriak: linguistikoa, soziolinguistikoa, diskurtsiboa, soziokulturala, estrategikoa
- xede berezietarako hizkuntza
- murgiltze-ikasketa, ikasketa akademikoari kontrajarriz
- hizkuntz ikasketarako hizkuntz egoera naturala, egoera artifizialari nahiz laborategikoari kontrajarriz
- hizkuntza arruntaren erabilpen-eramua eta gai espezialduei dagozkien erabilpen bereziak
- e.a.

Are (gure artean oraingoan) Txepetx eta beronen jarraitzaile soziolinguista batzuren eskutik, Saussure-ren esanari (hizkuntza «institution sociale» bat da) helduz, hasia da gorputzen korrante interesgarri bat:

hizkuntza, gertaera soziala denez, ez da indibiduoaren arazo, hizkuntz komunitatearen arazo baizik; ondorioz, hiltun bihurtzea, delako hiz-

kuntz komunitate horretan integratzea da: berezko hizkuntzaduna kulturizatuz, eta kultur hizkuntzaduna berezkituz.

Esan behar da, gure arteko soziolinguistikaren jarrera hau, xehetasunak salbu, bat datorrela gaur egungo hizkuntz/irakaskuntz teorikoen ikuspegi nagusiarekin.

Hitz batean, hizkuntzaren ikaskuntz/irakaskuntz prozesua ez da ez hasten, ez garatzen, ez burutzen edo amaitzen ez gramatika ikastearekin, ez hizketa-iharduera jakin batzuetarako (telefonoz hitzegiteko, tabernan aritzeko, aireportuan konpontzeko ...) esaldi klitxe batzuk ikastearekin. Azken batean, hizkuntza, nagusiki, interakziozko komunikazioa denez, interakziozko komunikazioa egitea izango da hizkuntzaren ikaskuntz/irakaskuntza.

Horiek horrela, euskararen ikasleak eta irakasleak (euskaltegiak, nahiago bada) gaur egun zer-nolako baldintzetan aurkitzen diren aztertuko da segidan, arazoa goitik behera arakatu eta azaltzeko pretentsiorik gabe, baina zuhin batzuk azaleratu asmoz.

Bi atal nagusitan banatuko da lana:

- I. Euskararen ikaskuntz/irakaskuntzarekin zerikusia duten alderdi soziolinguistiko batzuk.
- II. Adinekoen kasuan, euskararen ikaskuntz/irakaskuntzan nabari diren ezaugarri konkretuago batzuk.

## **I. EUSKARAREN IKASKUNTZ/IRAKASKUNTZAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ALDERDI SOZIO-LINGUISTIKO BATZUK**

Euskararen ikaskuntz/irakaskuntza prozesu jakin batean planteatzen da, testuinguru soziolinguistiko jakin ba-

ten barruan hariltzen da: bizi-nahi-etazezin batean dagoen euskal komunitatean. Bere bizia egoera larrian ikusten duen euskal komunitatearen bihotza (garuna edo eremu sinbolikoa, hobeto esan) hazi eta indartu egin nahi da. Euskaraz biziko den multzoa sendotu eta biziagotu egin nahi da. Euskaltegia ez da ari «Agur!», «Egunon!» esate hutsera mugatuko den jendea «eskola-tzen».

Testuinguru horretan du zentzua, euskaldunok (eskola, komunikabide sozial, administrazioa, lantegiak, e.a. euskaldundu nahian) egiten ari garen lanak. Hor kokatzen da adineko jendea alfabetatzeko eta euskalduntzeko egiten ari garen ahalegina ere.

Zeregin horri gagozkiola, ordea, zeintzu dira baldintza soziolinguistikoak?

### **1. Hizkuntzaren berreskurapena fenomeno soziala**

Hizkuntza fenomeno soziala da. Nagusiki, elkarrekin komunikatzeko tresna da. Hizkuntza bat ikasi ala ez, normalean, ez da arazo indibiduala; boluntarismoak aleren bat edo beste eman lezake, baina gizarte-mailako arazoa gizarteak konpontzen edo «deskonpontzen» du; halere, gizarteko indar bizek mugierazten dute gizartea, alde batera nahiz bestera, hein handi batean. Indar bizi horiek, hain zuzen ere, euskal komunitatearen bihotz dira, gorago aipaturiko eremu sinboliko hori.

Indar berezi horiek ez dago zertan identifikatu ez politikarekin, ez alderdi politiko jakin batekin, ez euskararen aldeko noizbehinkako manifestazio haundi-mandiekin.

Are. Esperientziak bestelako errealtatea agertzen digu, bai politikarien kasuan, bai, neurri handian, euskara-

ren aldeko manifestazio haundi-maundien kasuan.

Politikarien kasuan. Alde batetik, hitzez eta egitez euskararen kontra dauzkagun politikarien kasua daukagu. Bestetik, hitzez alde egon arren, praxiak, politikagintzak, hurrengo hauteskundeetan erdaldunen botoa zaindu behar izateak, norberak euskara jakin ez eta euskara ikasten denbora «galtzen ari nahi ez izateak» (ad majora natus sum; nahiago dut ingelesa ikasi...) euskara alboratu uztera daramatzatenak daude.

Euskal Herritik kanpora ere badira adibideak. Hor dago Irlanda. Israelen ere, politikariek, juduak israeleratzten hasi zirenean, lehenago hartuko zuketenguelesa hizkuntza nazionalizat eta praktikotzat; halaxe planteatu zuten lehenengo politikariek. Beren nortasun-identitatea barru-barruan bizi zuten indar biziak behartu zituzten politikariek hebraiera hizkuntza nazional eta praktikotzat hartuz.

Euskararen aldeko manifestazio haundi-mandiak. Hainbat ekitaldi egiten da gure artean: manifestazioak, kilometroak, ibilaldia, Nafarroa Oinez, Araba Euskaraz, Korrika, Herri Urrats ...

Hauxe da gogora datorkizuna horien aurrean: jendetza hori guztia bere bizitzan euskaraz arituko balitz (ez dut esan nahi, militantea balitz), euskararen erabilerak ez ote luke maila altuagoa emango?

Indar biziak esatean, zera esan nahi da: bere nortasun-identitatea, hein handian, euskal komunitateari zor diola uste duen jendea. Erizpide koherentea jendea, alabaina: hitz xuritan gelditzen ez dena; esplizitoki nahiz inplizitoki «hable Ud. cristiano»ka (esamolde hori hain ondo ikusia ez delako, gaur egun «ese problema es mio» itzuliko dizute, zuri euskaraz hitz

egiteko eskatzen diezunean) ari denari moka itxiaraziko dion jendea; eskolan nahiz udaletxean, nahiz... lan egin behar duenari euskara jakin eta erabili beharra planteatzea diktatorializat nahiz faszizatzea ematen duenari bi hitz borobil esango dizkion jendea.

Hitz batean, indar bizi esatean, zera esan nahi da: Euskal Herrian bizi den jende-multzo osoarengan aski autoritate moral, politiko, kultural, ekonomiko, eragile izango duen jende-multzo txiki-haundia.

Indar bizi horren funtzioa gizarte osoari eragitea da. Presio soziala lortzea, biziagotzea, euskal komunitatearen alde.

Bidegurutze horretan egiten dute topo euskaltegiaren egiteko espezifikoa eta euskal indar biziaren egiteko barreiatuago baina sakonagoak. Egiteko espezifikoa askoren eta egiteko orokor horren sinbiosia da: haurrak eta gaztetxoak euskalduntzeak jende heldua euskalduntzea eskatzen du, jende heldua euskalduntzea motibazio-iturri da haur eta gaztetxoentzat; eremu sinboliko hori odola eman eta eman ari zaio kanpoan dagoen jendeari, bere baitara erakartzeko.

Euskaltegiari ezinbestekoa zaio indar biziaren bultzada; bestela, ingelesa nahiz frantsesa irakasten dutenen pareko litzateke. Eremu sinbolikoari, berriz, ezinbestekoa ez bada ere, guztiz mesedegarri eta baliagarri dakioke euskaltegia: nukleo bizi eta giharra hazi eta hedatuko bada, euskara ikasi egin behar da; lehentasunen arazoa da; euskara ikastea ez da ad calendae graecas utz daitekeen gauza; era azeleratuan eta masiboan ikasi behar da; giza banakakoen ikasteak ez du konpentsatzen kontrako indarren eraso; eremu sinbolikoa, muga batetik behera iritsiz gero, herioak jotako zerbaite litzateke, ezingo luke burua altxa.



Gaur egun, euskaltegiaren arazoa, orohar, ez da metodologia, ez da hizkuntzen didaktika, ez da dirua ere (ez luke izan behar, bederen). Arazoa, ikasleen eta ikasle-gaien motibazioa da. Bestela esanda, euskal komunitatearen erakarmen-indarraren ahulezia da; eremu sinbolikoaren indar-eskasia. Ez da sentitzen euskaldun izan beharrraren beharrik.

Nola indartu, beraz, euskal komunitatearen aldeko presio sozial hori, euskaldun izan beharrraren behar hori? Zein estrategiari heldu?

## 2. Nola muegierazi gizartea

Hau da euskal hiztunak ugaltzeak daukan gakoa. Horretan asmatzea litzateke giltza euskal komunitatea indartzeko. Ez du ematen inork asmatu duenik horretarako sorgin-makilatxorik. Ez du ematen, bestalde, soluzioa aldagai bakar baten baitan egon daitekeenik. Aldaba asko jo beharko, gizarte-bizitzako hainbat pizgailu esnatzeko. Dena den, adineko ikasleen artean ibiltzeak eman dizkigun iradokizun batzuk aipatzea aletxo bat gerta daiteke bilatze-prozesu horretan.

### 2.1. Zertaraino landua iraganean aipatutako hizkuntza

Iraganean, aipatutako hizkuntzak zer-nolako landuketa izan du? Bai hiztegiari bai idazteari dagokionez, zer-nolako izena, ospea izan du?

Alde batetik, prestijio-kontua dago auzitan hor. Hizkuntza ikasi nahiz hitzegin behar duenarengan badu zerikuririk iraganean hizkuntzak izandako prestijioak, izenak. Alde horretatik, euskarak badu halako xarma edo lilura bat, hitzegina izanari dagokionez bederen: menderen mendetan hitzegina, alde guztietako erasoak gainditu izana...

Bestetik, erabilera haundiagoa ala txikiagoa izan izanak, hizkuntza bera landuagoa ala miaztagabeagoa esan nahi du. Beraz, komunikazioarako (komunikazio-funtzio diferenteetarako) baliagarriagoa ala traketsagoa izatea. Eta, ondorioz, erakargarritasun haundiago ala txikiagoa.

### 2.2. Zein mailatan erabilia

Erabilia izan bada, zein mailatan? Hau da:

- Delako hizkuntza hori, zein jende-kopuruk hitzegin du? Mintzo deneko lurraldean, zein jende proportziok hitzegin du?
- Eta zein jende-motak hitzegin du? Gizarte-maila guztiek, goikoek, apalenek?
- Zein komunikazio-funtzio betetzeko erabili izan da?

Esan beharra dago, lehenengo puntuari dagokionez, euskaldunok gutxiegi aipatu izan dugula joan den mendearren hirugarren herena arteko euskaldun proportzioaren kontua. Badirudi, demokrazi itxurako ideologiak («demokrazia formala» esatea politagoa omen da), unean uneko errealitatera mugatzea eskatzen digula: «pasotismoa» uste baino errealitate zabalagoa dugu nonbait: «orainak du inportan», «iraganak ez du esatekorik»... Horrela, bistan legoke, Euskal Herriko momentu honetako euskal hiztunen proportzioak zer esan haundirik ez lukeela: botoen kopuru materialak agintzen du, eta kitto. Baina, dudariz ez da, beste parametro batzuk erabiltzea ez lego-keela batere gaizki. Eta egiaz gogo-betegarri gertatzen dira giza giro normal samar batean: mendetan zehar, inori azpia jaten aritzeko asmorik gabe bertako komunitatearen hizkuntza izana izatea, munduan nabari den uniformetasun-joerari uko eginez giza aberastasun-barietateko faktore interesgarri bat gehiago izan daitekeelakoa... Guztiak

ere materialtasunaren eta mekanizismoaren begientzat lilura gutxiko arrazoiak, baina giza begi txorrotx, integral eta bizigarrientzat arrazoi bete-beteko.

Alde horretatik, euskal komunitatearen historiak, joan-etorriek, gorabeherak indar haundia lukete (eta ohi dute) euskaltegiaren martxan.

Ataltxo honetan aipatu diren b) eta c) puntuek, euskararen kasuan, zuzenean halako liluragarritasunik ez badute ere, zeharka aski eragile gerta daitezke; hain zuzen ere, historian zehar, besteri (euskarari) azpia jan nahia nagusi izanaren ezaugarri gertatzen direlako: gizarte-sektore agintariek muzin egin izan diote euskarari; pertsegitua izanaren kontzientziak ere bere indarra izan ohi du.

### 2.3. Zer-nolako lokera inguruko hizkuntz komunitatearekin

Hizkuntz komunitateak inguruko komunitateekin bizi izandako harremanetan izan duen identitate-zentzua garrantzi haundiko arazoa da. Egungo komunitatearen identitate-zentzua, neurri haundian, iraganeko identitate-zentzuari loturik dagoela esan daiteke.

Alde honetatik, euskal komunitateak bere hizkuntzari eutsi izana da gaur egungo identitate-kontzientziaren zimentarria.

### 2.4. Euskararen berreskurapena lurraldeko jende guztiaren egitekoa

Euskararen berreskurapena plangintza baten ondorio izango da, edota ez da izango. Eta plangintzak, besteak beste, fenomeno linguistikoen, sozialen eta psikologikoen ezagutza, antolaketa eta bideratzea eskatzen du.

Bideratzeak arauzkotzea dakar. Baina, arauzkotzea ezin ezkondu da arbitrariedadekin, ez kaxketaldiarekin, ez

nahikunde hutsarekin. Arauzkotzeak, funtsean, berezko normatibitatea normatibitate positibo bihurtzea esan nahi du: berezko normatibitatea normatibitate eguneratu eta konkretu bihurtzea. Funtsean, jabetzea, kontzientzi hartzea.

Arbitraritatea litzateke, agintera alderdi jakin bat igo dela-eta, ordurarte-koaren kontrako legea jarri ahal izatea: bai hizkuntzari dagokionez, bai beste zernahiri buruz.

Arbitraritatea litzateke, erizpide bakartzat, hain mugikorra eta aldagarria (pentsa zer ez ote lezakeen egin estatu boteretsu batek jende-masaren toki-aldaketaren bidez) den botu-kopurua hartzea.

Nahikunde hutsa litzateke, berriz, beste hau: «nahi nuke, baina...». Zer esan nahi du, esaterako, gurasoen ehunetik 80-90ak bere haurrek euskara ikas dezaten nahi izateak? Norberarentzat nahi ez eta besterentzat nahi izateaz esan daitekeen gutxienezkoa, hauxe da: arinkeria haundi bat dela. Eta arinkeriaz egiten diren gauzak, gaur bat eta bihar beste bat izaten dira. Erizpide kaxkarra, beraz, hizkuntzaren arautze-prozesuaren zimentarritzat horrelakoa ematea.

Hori bai, arautze-estrategia markatzean, kontuan hartzekoa dateke botu-kopurua. Torlojua gehiegi estutu nahiak, adibidez, haria izurratzea bait dakarke.

Estrategia hori asmatzean lukete beren toki aproposa gorago aipatutako hizkuntzaren iraganari buruzko gogapenek eta antzekoek.

Bai. Hizkuntza fenomeno soziala denez, faktore historikoez gain, momentuko faktore sozial eta psikologikoak hartu beharko dira kontuan. Hobeto esan, hizkuntzaren arauzko-

tzea ez dateke ezer ere, baldin eta onarpen sozialik ez badu.

Baina, berriro esan, onarpen sozialak koherentea behar du izan. Hizkuntza ez da norbereganatzen ez legez, ez irrintzika, bizitzan biziz baizik.

Plangintzak herritar guztion plangintza esan nahi du. Eskola kate maila bat besterik ez da; euskaltegia ere halaxe; komunikabide sozialak ere berdin. Plangintzak, zuzenean nahiz zeharka, herritar guztiok harrapatuko gaitu, bestela ez da plangintza izango: hizkuntza interakzioa denez, hizkuntzaren ikasketa ere interakzioz garatu beharko da; besterik ezean, plangintzaren kostu ekonomikoak guztiok ukituko gaitu (benetan bitxiak gertatzen dira egunerokoetan agertu ohi diren eskutitz batzuk: irakasleak euskaraz trebatzeko gastuak gaitzesten bait dira, eta ingeleza ikastea bezalaxe, euskara ikasteak ere ekimen pribatuko izan beharko lukeela defenditzen).

Plangintzak orduan duke benetako indarra, hain zuzen ere: herritar guztiok berorren sareetan harrapaturik gertatzean. Puskakako hizkuntz plangintzaren (partzialen) errua eta okerra honetan dagoke: hiztunak egitea makinak egitea bezala dela uste izatean: aurten 20, datorrenean 25, e.a. Hori pertsonaren berezitasuna kontuan ez hartzea litzateke; pertsona motibazioak mugierazten duela, motibazioak bizierazten duela, eta diskriminazioak motibazio hori zapuztu egiten duela kontuan ez hartzea. Eta diskriminazioa litzateke, norberak nekerik hartu gabe edo guztien nekean parte hartu gabe, besteri zerbait eskatzea. Eta zenbat eta gehiago eskatu, jarrera horrekin, orduan eta diskriminazio haundiagoa. Eta badakigu, diskriminaturik sentitzeak blokeatu egiten dizkio pertsonari bere baliabide psikikoak.

Beraz, Euskal Herria berreuskaldun-

du bai, baina guztion artean. Euskaltegiak ezer gutxi egin lezake, Euskal Herriko gizarteak egiazko borondate-rik agertu eta bizi ez badu.

## 2.5. Euskararen normalgintzarako egin-dako urratsez zenbait erreflexio

Batzuk diote: «aspaldi honetan ez da ezertxo ere egin». Uste horretakoa banintz, ez luke arrazoirik ataltxo honek. Baina, zerbait baino gehiago egin da; egin behar zatekeen guztia (askoz gutxiago ere) ez, ordea. Baina, bai alde positiboa, bai alde negatiboa, biak Euskal Herri osoari egotziko nizkioke, ordea; bestelako jarrera manikeoa litzateke: «onak eta gaiztoak». Aurreko ataltxoetan adierazitako koordinadetan kokatu behar euskararen prozesua. Oinarrian, indar biziak esaten eta ezartzen dio administrazioari zer egin; administrazioak erantzuten indar biziaren gogoara arauetan plasmatu-rik.

Baina, egia haundiena esandako hau: zerbait baino gehiago egina da; egin behar zatekeen guztia ez. Eta batez ere, egin behar zatekeen bezala ez; nagusiki, euskara berreskuratu beharra gizarte-sektore partzialei planteatu ezin zaielako, diskriminazioa ezarritz.

### 2.5.1. Corpus planning-aren hutsuneak

Hizkuntzaren ikaste/irakaste prozesuan garrantzi haundikoa da hizkuntzaren normalizazio linguistikoa. Alde honetatik, urrats haundiak eman badi-ra ere, ezin uka asko eta asko gelditzen dela egiteko: lexikoa, terminologia, joserak, hizkuntzaren analisi bereziagoak: esamoldeak, erregistroak (adibidez: izurratu/hondatu/matxura edo aberia izan ...)... (Hizkuntzaren erregistroak kontuan ez hartzeagatik sortu izan dira, gure artean, hizkuntzari buruzko eztabaida asko eta asko: etxeko euskararekin zientzi alor espezialduetako arazoak konpon daitezkeela uste iza-



tea; nornahik bere burua hizkuntzalaritzat jo nahi izatea...). Bistan da: eztabaida oker-planteatu eta antzu horiek ez dute batere sustatzen euskara ikasten ari denaren gogoia eta motibazioa.

### 2.5.2. Status planning-aren gorabeherak

Euskara exijitzeko orduan, atzekoz aurrera hasi ote garen errezeloak badiara: lanpostuetan behe-mailakoetakoei eman nahi izan zaie lehentasuna: telefonistei, leihatilakoei...

Ez da kontuan hartu, leihatilaz barrukoek ezin dutela euskaraz egin, baldin eta leihatilara doazenek egiten ez badute. Eta konturatu gara, herritar gutxi doala administrazioko leihatilara euskaraz eginez.

Bistan da, beraz, era «paketsuan» eta «modu oneko» jarraz ezin dela berreuskaldundu egungo genozidio linguistikoa bere onetik atera duen gizarte hau. Jarrera belijeranteagoa eskatzen du horrek. «Euskaraz datorrenari egiozu euskaraz» orde, «euskaraz eginez, ager diezaiozun, gizarte honetan bizi ahal izateko, euskaraz egitea beharrezkoa dela» adierazi beharko litzaioke.

Jarrera pasibo eta hartzailearen orde, aktiboa eta eragilea beharko litzaiteke.

Horiek horrela, emateko eta eragiteko ahalbide haundiena dutenei dagokie euskaraz hitzegitzen hasi eta egitea, eta ez badakite, ikastea. Esan nahi da, politikariei, profesionalei, idazleei, goi-kargudunei... dagokiela euskaraz aritzea, lehentasunak markatzekotan. Ikusi ere, beste era batera ikusiko lukete euskal komunitatearen arazoa politikariek, kolektibo bezala euskaraz egiten (eta behar izanez gero, ikasten) hasiko balira: Legebiltzarrean, Foru-Aldundian, Udaletxean... Hauteskun-

deei begira, euskararen exigentzia planteatzeak lekarzkeen kezka ere maila apalagoak izango lirarteke seguraski; besteak beste, boto-emaleek ere, ondorioz, kontzientzia biziagoa luketelako euskararen beharrari buruz.

Guzti hau, jakina, gauetik goizetako arazoa ez denez, eta gaur bezala hemendik hamar urtera ere utopikotzat hartua gerta ez dadin, berehala hasi beharko litzateke bidea urratzen. Zein bide? Bai, politikari gehienek, profesional gehienek, goi-kargudun gehienek arragoa den Euskal Herriko Unibertsitatea euskalduntzeari biziki eta buruz ekinez.

Unibertsitatea da, dudarik gabe, Euskal Herriko jendea euskalduntzeko giltza. Besteak bertan behera utzi gabe, noski; baina, lehentasuna Unibertsitateari eskainiz eta exijituz.

Falta zaigun edota urritzat jotzen dugun gizarte-presioa orduan hasiko litzateke irakiten. Ez leloaren leloak, baizik eguneroko praxia koherenteak sortuko luke euskararen behararen behar-sentimendua.

## II. ADINEKO EUSKAL IKASLEEN EUSKARAREN IKASKUNTZ/IRAKASKUNTZAN NABARI DIREN EZAUGARRI BATZUK

Gorago esan bezala, euskararen ikaskuntz/irakaskuntza ez da arazo indibiduala; ikaslearena eta irakaslearena ezezik, euskal komunitate osoarena da. Ezaugarriak esatean, euskal komunitate osoari dagozkion ezaugarriak dira, beraz, nagusi.

### 3. ADINEKO EUSKAL IKASLEAK MOTIBAZIO ESTRINTSEKOTIK INTRINTSEKORANTZ

Euskararen inguruan lanean ari garenon xedea (Txepetx-en esamoldea erabiltzeko), euskal komunitatearen

eremu sinbolikoa zabaltzea eta sendotzea da. Hau da, euskararen egungo egoeran, intentzionalitatea, asmoa, militantzia... ezinbestekoa da. Ingelesak ez du, esplizitoki bederen, honelako beharrik, berez bezala datorkio indarra. Hizkuntz gutxituen kasuan bestela da.

Horrez gero, jakinik ehuneko haundia motibazio estrintsekoak eraginik hasten dela euskara ikasten, zer esan egungo euskal ikaslegoaz? (Aztertzea litzateke, era berean, euskara dakien zenbatek, are euskara irakasten diharduen zenbatek duen motibazio intrintsekoa, edota zenbateraino bizi duen motibazio intrintsekoa.)

### 3.1. Adineko euskal ikaslearen motibazio estrintsekoa eta faktore sozio-linguistikoa

Adinekoen euskalduntzeak prozesu aski luzea eginga du dagoeneko. Aldaketa asko ere jasan izan du prozesu horrek bere joan-etorrian: metodoak, metodologia, programak, ikastorduen sarritasun-moduloa, ikasgelak, ikasi behararen arintasuna/nagusitasuna...

Aldaketa haundienetakoa, agian, motibazioari dagokiona dateke.

Zer-nolako ikusmodua du ikasketa/irakaskuntzaz bai ikasleak, bai irakasleak, bai euskal komunitateko beste nornahik?

Gaur egun, euskara ikasteari ekiten dionarengan motibazio estrintsekoa da nagusi: lana bilatzeko, promozionatzeko... ikasten du euskara. Euskal komunitatearen eremu sinbolikoko partaide izateko, hizkuntzaz gain, euskal komunitatearekiko atxekimendua esatean, euskaraz bizi den komunitatearekikoa esan nahi da; «Euskal Herri» esatean, hala interpretatu ohi dugu.

Horiek horrela, zer esan motibazio

estrintseko ikasten hasten den ikasleaz?

Esan daitekeen gutxienez, motibazio estrintseko hutsik ez dagoela; motibazio intrintseko hutsik ez dagoen bezalaxe. Bai, ordea, gutxi edo asko.

Gutxi duenari, gehiago kostako zaio eremu sinbolikora iristea.

Motibazio intrintseko gutxi duenak, euskararen ikasketa, ingelesaren eta frantsesaren ikasketaren pareko bezala planteatzen du. Horrela nekez iritsiko da euskal komunitatearen bihotzarekin identifikatzera. Hizkuntza gauza mekaniko bat baino zerbait gehiago da.

Konstatazio honek, noski, sustrai haundiak eta aspaldikoak dituen errealitatea dakarkigu gogora. Motibazio eskasaren kasua ez da gaur eguneko fenomeno. Euskalduntzearen boom-tzat eman ohi diren 60 eta 70 hamarkadetan ere, motibazioa ez zen oso haundia; bestela, ikusi genituenak baino frutu oparoagoak ikusi ahal izango genituen.

Diodanarekin ez noa ez deskalifikatzera, ez aldatzera euskal komunitatearen indartze/geldotzeaz gure arteko soziolinguistek diotena. Bakar-bakarririk, hau esan nahi dut: egungo motibazioak, adineko jendearen euskalduntze-lanari dagokionez, ez diola ezer ere zor garai hoberenetakoari.

Hain zuzen ere:

- abiapuntuko motibazio eskasa indartzen ahal delako, eta egun inoiz baino baldintza hobeak dituelako ikasleak euskara ikasten jarraitzeko, eta, ondorioz, motibazio intrintsekora iristeko;
- zenbait euskaltegi eta irakasle gogotik saiatzeko delako motibazio hori biziagotzen laguntzen;
- erabiltzen diren tresnak (testuak ...) gero eta beteagoak direlako



(puntu honetan, esaterako orain 6/8 urteko morbositateko-kutsuko testuak gaindituak dira zorionez; halere, belegoke zereginik oraino: fikzio hutseko nahiz folklore-kutsu hutseko gaiak gaindituz, ikaslea kultura biziago eta berarizko-ra bideratuz).

Ezin uka, haatik, motibazioaren kon-trako faktoreak ere:

- inguru erdalduna: familia, lagunartea, komunikabideak, kultur ekintzak (badirudi, amerikanismoak gaztelanismoak baino euskaldunago direla askorentzat)...;
- euskararen aldeko presio sozial gero eta kaxkarragoa: alderdi politikoen aldetik praxiarik gabeko printzipio antzutan gelditzen dira askotan euskararen aldeko aitopanak, kultur elkarteek nahiago dute erdaraz ihardun, kalean eta lantegian protesta testimonialetara mugatzen da euskararen aldeko ihardun guztia edo ia guztia.

Horrela, euskaltegiaren egitekoa neurri haundian hazten da: «profetarena» ere egin beharrean gertatzen da maila haundian. Motibazio intrintseko txikiz hasten den ikaslea motibartzeko aha-lerin bereziak egin behar ditu euskaltegiak.

Horiek horrela, zer esan motibazio estrintseko euskara ikasten ari den ikasleaz?

Luzeegi joko luke kasuistika osoa egiten hasteak; hala, bizpahiru puntu aipatuko dira:

- a) arrazoi profesionalek eskatzen dioten neurrian, euskararen maila bat gainditzeko moduan ikasiko du; baina agiritxoa lortu ondoren go erabilera garantizatu gabe geratuko da;
- b) euskararen ikasketa egin ahala,

motibazio intrintsekora iritxiko da;

- c) edozein kasutan, euskaltegiak neurriz gainera ahaletin egin behar harko ditu, motibazio intrintseko eskasa dela medio.

Azken batean, ordea, «motibazio estrintseko euskara ikasten ari den ikasleaz» baino gehiago, eremu sinboliko kaxkarra duen euskal komunitateaz litzateke auzia.

Edozein kasutan, arrazoi profesionalengatik euskara ikasi beharra izatea gaitzesten hastea begimotz jokatzea litzateke. Halere, zuzenestekoa ez bada ere, badute ulergarritasunik halako ikasle baten gogoeta hauek:

«Lurralde-ordezkaritzara joan, eta bertako langilegoari gaztelaniaz aritu behar nik, eta beraiek ni euskara ikastera behartzen?», «Zertan behartu ni euskara ikastera? Hobeto ikasiko nuke piskana-piskana non lan egin emango balidate».

Ulergarriak alegia, batzuk behartu eta besteak pauso bat ere ez emateak diskriminazio-usaina bait du. Zuzenestekoa ez, ordea, «dena edo ezer ez» delakoa ez bait du zentzurik.

### 3.2. Motibazioa eta corpus planning-aren mailako arazoak

Esan bezala, hizkuntza ikaste/irakasteko orduan, motibazioa da faktore garrantzizkoena.

Motibazioa, ordea, ez da «hor dagoen zerbait», ez da «behin betirako emaniko zerbait», ez da esentzia mugiezina.

Aitzitik, alde askotatik eta era askotara eragin eta erasan dakiok. Faktore soziolinguistikoez gain, hor daude corpus-ari dagozkion arazoak ere. Segi-

dan, hiru puntutxo aipatu nahi nituzke.

### 3.2.1. Ikaslea euskara batuaren eta euskalkien artean

Esango nuke, arazo hau euskaltegi-tan bideratu samarturik dagoela. Era «baketsuegian» bideraturik, ordea.

Egia da, euskararen ikaste/irakas-kuntzan euskararen standardizazioa-ren aldetik bideratu beste erremediorik ez dagoela, bai pragmatikoki jokatu nahi bada, bai euskal komunitatearen normalizaziorantz jo nahi bada.

Halere, ikaslea euskalkira hurbil era-zi nahi ez bada, biotan bat:

- edota euskararen irakaskuntza irakurri/idaztera mugatu da; izan ere, nola eta noiz iritsiko da ikas-le hori euskal komunitate trin-koan, euskara berezkoa duenean txertatzera? «Bat ala bestea» delako bidea gehienetan izan ohi da susmagarri; kasu honetan bederen bai; errealtateari ezin egin dakioke uko hain drastikoki, eta gure errealtatea bikoitza da gutxienik: euskara berezkoa dute-nena eta normalizatu beharreko euskal komunitatearena;
- edota ikaslea bere kidekoekiko komunikazio-harremanetara mu-gaturik eta murrizturik uzten da; hau da, ikasle hori bere mailako euskara dutenekin bakarrik ari ahal izango da euskaraz; ondo datorkioke hasera batean, maila-txo bat lortu bitartean, horretan geratzea; baina xedeak urrunera-ko edo sakonagora jo behar du.

Lehenengo kasua murrizketa antzu bezain zentzugabea litzateke. Euska-ren eremu sinbolikoan euskal hiztunek bete dezakete erdigunea; irakurtzea eta

idaztea, beharrezkoak izanik ere, biga-rren mailakoak dira.

Bigarren kasua ikaslea erro edo sus-trairik gabe uztea litzateke. Zilegi bekit Bibliako irudia erabiltzea: sasitar-tean eroritako hazia litzateke; hezetasun fal-taz galdua litzateke berehalaxe. Halako ikasleak, izan ere, ez luke jaiotzetiko hiztunak moldatutako lur mardula eta hezearen izerdi bizirik.

Beraz, euskara standardizatua bai, baina ikasleak bizi beharko duen ingu-rugiroko hizkerarako hurbilketarekin. Are. Jaiotzetiko euskaldunaren «aka-tsetarako» hurbilketarekin.

Euskaltegiak, zenbai burubide abs-traktu eta laborategiko gaudituz, eus-kararen erabilera-behar ezinbestekoak dagion desafio eta enbido horri aurre eman baharra du: ikasleak ikasketa-prozesuaren etapa jakin batean euska-raz beren artean bakarrik aritzea uler-tzekoa (are, baikorra) bada ere, ezin muga daiteke irakaskuntza hesi horre-tara. Azken batean, globaltasunaren globaltasuna da euskal hiztunaren mundua.

Hemen ere, ordea, biok dute zeres-a-nik: euskaltegiak eta gizarte osoak.

Euskaltegiak. Bere egitaraua xede horretara egokitu beharko lukeelako. Eta ez naiz ari ikasgelako lanaz baka-rrik; ikuspegi zabalagoa beharko luke euskaltegiak.

Gizarte osoak. Elkarketa ez da seku-la alde batera bakarrik egiten. Ezin zaio eskatu ikasleari bide guztia egin dezan; gizarteari ere ondo datorkio erdibiderantz urratsen bat edo beste egitea; bere berezkotasunari ezer ere kendu gabe, alfabetatzeak on haundia egingo lioke berari ere. «Intzak» nahiz «inbiu» bezalako kontrakzio batzuk galtzeak batere kalterik ez liokete egin-

go euskararen berezkotasunari, eta bai mesede ederrik normaltasunari.

### 3.2.2. Ikaslea eta euskararen erregistroak

«Hitzegitean erabiltzen ditugun hiztegia eta sintaxiaren alderdi batzuk aldatu egiten dira testuinguruaren eta helburuaren arabera; gainera helburu eta egoera jakin baterako, diskurtso-era diferenteak sor ditzakegu; bestalde, diskurtso-era bat beraren baitan, testu indibidual bakoitzak begibistako berezitasunak aurkezten ditu (J.P. Bronckart, ik. Eusk. Biltz. II. alea, 53. or.).

Hau da, batzutan beste norbait kontentitzeko ari zara hizketan; beste batzutan berri bat emateko; beste batzutan bihotz emateko.

Batzutan zeure espezialitateko batekin (medikuarekin, fisikoarekin, legelariarekin...) ari ohi zara; beste batzutan zure espezialitateaz ezer gutxi dakien batekin.

Badute zerikusirik honekin arau sozialek ere: 15 urteko batek 60 urteko bati hika aritzea ez da sartzen «ohizko» arau sozialetan.

Bada haurtxoei zuzenduriko hizkera bat ere.

Bada hizketa formalago nahiz informalago bat ere.

Hizkera horiek guztiek, azken batean, komunikaziorako hizkuntzak duen gaitasuna azaltzen dute. Ez da egia ikasleak badukeela aski lan honelako «bitxikerietan» murgildu gabe. Ez da egia, zeren hondo-hondoan ikasleari motibazioa sakontzen laguntzea bait da koxka eta arazoa, eta ikuspegi edo horizonte zabala azaltzeak ametsetarako aukera egokiagoa damaioketo ikuspegi mehar eta hertsia baino. Beste kontu bat da, hizkuntzaren zoko-moko

horiek guztiek aktiboki eta bapatean erabil ditzan eska dakioketen ala panoramaren berri teoriko eta praktikoa behin eta berriz azalduz eta adieraziz, zabalakea bada ere, errepide zabal zabalean ibiltzera eragin behar zaion.

Hitz batean, behin eta berriz esana denez, giltzarria motibazioa da. Komunikazio-gaitasuna beti da eragile nahiz erakargarri.

Hizkuntza ximple eta bidexidorrerako bat ikusteak baino eragin haundia du bidezabalekoak. Beste dosifikatu-behar guztiak motibazio-behar horri morroitu beharko litzaioke.

### 3.2.3. Nori bere lanbiderako hizkera

Bistan da, hizkuntza erabiltzeko da. Eguneko ordu gehienak lanean igarotzen direnez, normala dirudi ikasketa/irakasketa laneko hizkerara bideratu behar izatea: maisu/maistrekin eskolan erabiliko duten hizkera (geografia, historia, hizkuntza, matematika...) landu beharko litzateke (hiztegia, erregistroak...).

Baina, bereizketa bat ezinbestekoa da.

Alde batetik, ematen du, arazoa honela planteatzean, 3.2.2.an esandakoaren aurka goazkeela: arazoa itsu-itsuan eta erabat honela planteatuz, hizkera murrizta eta mugatua proposatuko litzaioke ikasleari; disziplina jakin bati legokioketena solik: hiztegi espezialdu mugatua, sintasi-era sinplifikatua, erregistro bakarrekota (didaktiko hutsa) (batipat eskolaketa, hezketa alde batera utziz, irakasketara mugatzen denean)... Horrelako planteamendua, 3.2.2.an esandakoaren arabera, (motibazioaren aldetik alegia) goitik behera letorke. Bestalde, badirudi, horrela jokatzeko zimentarriak baino lehen teilatua ematen hastea litzatekeela; hain zuzen ere, hizkuntza arrunta eta orokorra da



oinarrizkoa, eta espezialitateetako hizkuntza teilatua.

Bestalde, ordea, arazoa ez da hain sinplea.

Batetik, arazoa ez da hizkuntza arrunta eta orokorra alde batera utzi eta espezialduari ekitea. Beste hau baik: ikaslea hizkuntza arrunt eta orokorrean sartu xamarturik dagoenean, hizkuntza espezialduari indar bereziz ekitea. Kontua noiz/nolakoena da.

Bestetik, arazoa pragmatikoki planteatuz, adineko ikasle asko eta askok ikasi duentxoan lanean bakarrik erabili ahal izango du euskararen ikastaldia bukatu ondoren. Arrazoizkoa dirudi, beraz, laneko girora bereziki prestatzeak. Jakinik, ordea, kasu askotan irtenbide hori emerjentziazkoa izango dela; hizkuntza arrun eta orokorraren jabetza sendorik gabe, nekez iritsiko da hizkuntzaren eremu sinboliko hori haztera. Halere, neurri koxkorrean bada ere, lanean erabili ahal izateak eman diezaioke indarririk eusteko.

## AZKEN HITZA

Adinekoen alfabetatze/euskalduntzeari buruzko ikuspegiak badu antzik beste ikuspegi batekin: gizartearen pro-

blemen panazeatzat eskola ematearekin.

Ez eskolak soluziona ditzake gizartearen arazoak, ez euskaltegia gerta daiteke adinekoen alfabetatze/euskalduntzearen irtenbide.

Ikuspegiak ikusmolde bihurtu behar du: gizarte osoaren problema gizarte osoak soluziona lezake. Gizarteak arazoa beretartuko ez balu, jai legoke. Eta euskaltegiak ikuskera panoramiko horrekin jokatu ez balu, jai luke.

Euskaltegiko metodologiaz eta beste hainbat arazo puntualetaz mila ikerketa, azterketa egiten ahal dira; mila arau erabaki ere bai. Funtsezkoena, ikasle-goak erreferentziazat har dezan gizatalde gihartsu, trinko, bateratu eta boteretsua moldatu eta areagotuz joatea da: horrek eragin diezaioke benetan eta eraginkorki.

Euskara ikasteko eta erabiltzeko, buru azkarra baino inportanteagoa dateke bihotz sutua; eta bihotza sutze-ko sua behar: aipatu gizatalde gihartsu, trinko, bateratu eta boteretsua.

Nukleo eta gihar horren aurka doazkeen fenomeno sozio-linguistikoak nahiz linguistikoak kontrako fenomenoak dirateke.

## PROBLEMAS SOZIOLINGÜÍSTICOS, REGISTROS LINGÜÍSTICOS Y LA ENSEÑANZA DEL EUSKARA A LOS ADULTOS

En la enseñanza del euskara, de acuerdo con lo ocurrido en otros países, se aprecia una evolución importante en lo referente a la metodología.

De acuerdo, en principio, con la perspectiva de fondo mencionada, el autor propone la necesidad de evolución en otra dimensión: la motivación. Parte para ello desde el siguiente punto de vista: el aprendizaje del euskara no puede ponerse, en Euskal Herria, en el mismo plano que el del francés o inglés por parte de un vasco. En efecto, a éste le debería interesar

hacerse euskaldún para sentirse y vivir en euskaldún; el francés o inglés le interesan, simplemente, para comunicarse en dichos idiomas. Por otra parte, en el caso del vasco que quiere aprender el euskara, la motivación inicial suele tener mucho de ambiguo, y ni el entorno sociolingüístico ni el estado poco normalizado del euskara le son favorables para enderezarla.

Por ello, lejos de ver la solución en exigencias individuales o más o menos sectorial/estamentales, propone exigencias globales: tanto a nivel de exigencias sociolingüísticas como a

nivel de normalización o estandarización lingüística.

Con todo, propone ciertas prioridades contrapuestas a las que en los últimos años se han solido establecer: contrapuestas a la exigencia establecida para con telefonistas y, en general, para con capas sociales inferiores (pero sin negar la importancia de éstas), propone la exigencia de la euskaldunización de la Universidad con vistas a euskaldunizar a la gente que el día de mañana va a ocupar los cargos políti-

cos y sociales dirigentes; contrapuesta al euskara standardizado, pero sin negarlo, propone la necesidad de interacción entre el neófito, el recién introducido en el mundo del euskara y el nativo; interacción a realizarse en los registros lingüísticos de éste último.

En una palabra, propone el autor y pide la participación de toda la sociedad en el trabajo de recuperación del euskara para toda la sociedad de Euskal Herria.

### SOCIOLINGUISTIC PROBLEMS, LINGUISTIC REGISTERS AND THE TEACHING OF BASQUE TO ADULTS

As has occurred in other countries, an important evolution in the teaching of Basque can be observed with regard to methodology.

With that same perspective in mind, the author here suggests the need for evolution in another dimension: that of motivation. As a starting point, he takes the view that the teaching of Basque, in the Basque Nation, cannot be located on the same plane as that of French or English to a Basque person. In fact, a Basque should be interested in becoming a fluent Basque speaker in order to feel and live as a Basque; French or English are of interest simply for the purposes of communication. On the other hand, in the case of the Basque person who wants to learn Basque, the initial motivation usually contains a certain ambiguity, and neither the sociolinguistic milieu nor the somewhat unstandardized state of Basque provide favourable conditions for the latter motivation to be clearly operative.

Consequently, far from seeing the solution in individual or more or less sectoral/stratum requirements for Basque, the author proposes

global requirements: as much at the level of sociolinguistic requirements as at the level of linguistic normalization or standardization.

Moreover, the author proposes certain priorities, in contradistinction to those which have normally been applied in recent years: against the language requisite established with regard to telephone operators and, in general, to lower social levels (but without denying the importance of these), the author puts forward the demand that the universities be made Basque speaking institutions, with the view to creating Basque speakers who at the same time are destined to become tomorrow's political and social leaders; against standardized Basque, yet without denying its importance, the author proposes the need for interaction between the neophyte, recently introduced to the world of Basque, and the native — an interaction to be carried out in the linguistic registers of the latter.

In a word, the author proposes and asks for the participation of the whole of the society in the work of recuperating Basque for the whole of the Basque Nation.

### PROBL/MES SOCIOLINGUISTIQUES, REGISTRES LINGUISTIQUES ET L'ENSEIGNEMENT DU BASQUE (EUSKARA) AUX ADULTES

*Dans l'enseignement du basque (euskara) on constate, d'accord avec ce qui s'est passé en d'autres pays, une importante évolution au sujet de la méthodologie.*

*D'accord, en principe, avec la perspective de fond mentionnée, l'auteur nous propose le besoin d'évolution dans une autre dimension: la motivation. Pour cela, il part du point de vue suivant: l'apprentissage du basque (euskara) ne peut pas être mis, dans le Pays basque, sur le même plan que celui du français ou de l'anglais, s'agissant*

*d'un Basque. En effet, un Basque devrait s'y intéresser pour se sentir et pour vivre en bascophone (euskaldun). Le français et l'anglais l'intéressent, simplement, pour se communiquer dans ces langues-là. D'ailleurs, dans le cas d'un Basque qui veut apprendre le basque (euskara), la motivation initiale a, généralement, beaucoup d'ambigu, et ni l'environnement sociolinguistique ni l'état encore peu normalisé de la langue basque ne lui sont favorables pour la redresser.*

*C'est pourquoi, loin de chercher la solution*

*dans des exigences individuelles ou, plus ou moins sectorielles, ou de classe, il nous propose des exigences globales, aussi bien au niveau d'exigences sociolinguistiques qu'au niveau de normalisation ou standardisation linguistique.*

*Toutefois, il avance certaines priorités, en opposition avec celles qu'on a, généralement, proposées ces derniers temps: en opposition à l'exigence établie envers les standardistes et, en général, à l'endroit des couches sociales inférieures (mais sans, pour autant, méconnaître leur importance), il propose l'exigence de la basquisation de l'Uni-*

*versité en vue de basquiser les gens qui, plus tard, vont occuper les postes politiques et sociaux dirigeants; en opposition au basque standardisé, mais sans le refuser, il propose le besoin d'interaction entre le néophyte, récemment introduit dans le monde du basque, et le natif; interaction à réaliser dans les registres linguistiques de ce dernier.*

*En un mot, l'auteur propose et demande la participation de toute la société au travail de récupération de la langue basque (euskara) pour toute la société du Pays basque (Euskal Herria).*